

## **AROTZEGIKO AUZIPETUEI ELKARTASUNA ADIERAZI ETA ABSOLUZIOA ESKATZEKO MOZIOA**

Aroztegiko proiektuak, 340 biztanle inguru dituen Lekarozko herrian hotela, golf zelaia eta 228 luxuzko etxebizitza egitea planteatzen du. Baztango etxeen %36a etxe hutsak edo bigarren etxe bizitzak direla jakinik, hasieratik nabarmena izan da proiektu honen izaera espekulatzaila. Lekaroztarrek eta Baztandarrek behin eta berriz proiektu honen kontrako iritzia adierazi badute ere, Nafarroako Gobernua UGEP (Udalez Gaineko Eragina duen Plana) gisa onartuz proiektu hau inposatzen tematu da. Modu honetan, Nafarroako Gobernuak herritarren interesak defenditu beharrean, interes pribatu eta espekulatzailak defenditu ditu, herritarrak inposizio honen aitzinean beren burua defenditzera behartuz.

Hondar urteetan, Aroztegia proiektuaren kontrako oposizioan parte hartu duten Baztandar herritar eta ordezkariak jazarpen judizial eta ekonomiko nabarmena pairatu dute. Proiektu honek pelotazo urbanistiko bat burutzea du helburu, eta Nafarroako Gobernuak UGEPa onartu izanak Baztango instituzioen eskumenak eta herritarren erabakitze gaitasuna urratu ditu.

Prozesu honetan, enpresa pribatu baten mesedetan, demokrazia eta herritarren borondatea alde batera utzi dira. Baztandarrek beren etorkizunaz erabakitze duten eskubidea urratu dute, herri eta nekazal lurak desjabetuz, baliabide naturalak kaltetuz, eta desegituraketa soziala zein hizkuntza eta kulturaren gainbehera eragingo lukeen proiektua bulkatuz. Hau Euskal Herrian historikoki eman den zapalkuntza eta inposizioaren bertze adibide nabarmena da, herri zapaldu eta okupatua garela berretsiz.

Horrez gain, 2021ean akanpada baten bidez Aroztegiko obrak geldiarazteko desobedientzia ekimena aitzin eramateagatik zazpi auzipetuek pairatzen duten egoera salatu nahi dugu: epaiketa izanen dute eta denera 20 urteko kartzela eta 56.000 euroko fidantza eskatu diete zigor gisa. Ez da zilegi eta ez da bidezkoa herritarrak eta ordezkariak kriminalizatzea denenak diren lurak eta baliabideak defendatzeagatik.

Horrenbertzez, udal honek honako hau erabakitzen du:

1. Elkartasuna adieraztea Aroztegiko obra gelditzeagatik auzipetutako zazpi herritarrei, eta beraien absoluzioa eskatzea.
2. Baztango herritarrek eta ordezkariak prozesu honetan jasan duten jazarpen judiziala eta ekonomikoa salatzea.
3. Herrien burujabetza eta erabakitze eskubidea aldarrikatzea, eta pelotazo urbanistiko eta inposizioen aitzinean Euskal Herriko herritarrek beren etorkizunaz erabakitze duten eskubidea defendatzea.
4. Otsailaren 1ean Iruñean eginen den manifestazio nazionalean Udal honen atxikimendua adieraztea, eta herritarrei bertan parte hartzeko deia egitea.
5. Nafarroako Gobernuari UGEPa gelditzeko eskatzea, bere erantzukizuna baita proiektua behin betirako gelditzea.